

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure funtsezko bazkideak bidaiatzeko garraioarekin lotutako enpresak izango dira, hala nola hegaldi-agentziak edo autobus konpainiak, besteak beste:

- Vueling: Espainiako kostu baxuko hegaldi konpainia da, guztira 106 bide dauzkana irekita Europa osoan.
- ALSA: Autobusen bitartez bidaiatzeko konpainia da. 2700 autobuseko flota du eta Espainiatik ateratzen diren hainbat bidai internazional eskaintzen ditu (Ingalaterra, Portugal, Italia, Frantzia...)
- Renfe: trenbide bidez bidaiatzeko konpainia da. Ingalaterrara, Frantziara etabarrera. joan daiteke konpainia honekin.
- CheapOair, Booking; Expedia...: bidaiak (hegazkinez batez ere) kostu baxuagoan aurkitzeko portalak dira.

Hauen bitartez, bidaien eskaintzak lortuko ditugu gure bezeroei bidaiatzeko prezio eskuragarriak eskaintzeko.

Gainera, gure zerbitzua hezkuntzan sartzen saiatuko gara, batez ere, 15 urtetik gorakoentzat. Aliantzak egingo ditugu gobernuarekin, gure zerbitzuak eskaintzeko institutu publikoetan; normalean, ikasleentzat oso zaila delako atzerrira bidaiatzeko bekak edo diru-laguntzak lortzea. Horregatik, institutu hauekin adostasunak egingo ditugu errazago eskaintzeko zerbitzuak. Bestalde, ikastetxe pribatuekin ere jarriko gara harremanetan gure zerbitzua eskaintzeko.

Enpresa pribatuei ere eskainiko diegu gure zerbitzua, izan ere langileen hizkuntza maila hobetu nahi duten enpresetan baliagarria izan daiteke.